## 1. TESTUA (10 puntu)

Proposatutako testua **garatu** behar duzu. Idazlanak **200 – 250 bitarteko** hitz kopurua izan behar du eta **aberastasuna, diskurtsoaren antolaketa, egokitasuna eta zuzentasuna** kontuan hartuko dira.

| | |
|---|---|
| **Testu-mota** | Eskutitza. |
| **Norentzat** | Galizian bizi den lagunarentzat. |
| **Zergatik** | Zure laguna bizi den herrian gertatu den albiste hunkigarriaren berri izan duzu.<br>Azaldu gertatu dena eta iruditu zaizuna, eta adierazi zuk nola bizi izan duzun. |

Eskema hemen egin dezakezu

## 3. TESTUA (10 puntu)

Proposatutako testua **garatu** behar duzu. Idazlanak **200 – 250 bitarteko** hitz kopurua izan behar du eta **aberastasuna, diskurtsoaren antolaketa, egokitasuna eta zuzentasuna** kontuan hartuko dira.

| | |
|---|---|
| **Gaia** | Bideo kamerez bete nahi dituzte kaleak. |
| **Testu-mota** | Argudio testua. |
| **Norentzat** | Egunkari edo aldizkarietako irakurleentzat. |
| **Zergatik** | Gai honen inguruan duzun iritzia edo ikuspuntua argi utzi nahi duzulako. |

Lehengoan, egunkaria irakurtzen ari zinela, iragarki honekin egin zenuen topo:

**Bideozaintzaren inguruko dokumentala gaur gauean, ETB1en**

Bideozaintzaren fenomenoa aztergai izango da ETB1 kateko *Mila begi* dokumentalean gaur, 23:05ean. Lehen munduko herrialdeak beldurraren gizarte bilakatu dira eta herritarren ongizatea eta segurtasuna bermatzeko ezkutuko kamerak jarri dituzte. Alabaina, gai horren inguruan zalantza eta eztabaida sortzen duten galdera sorta egingo dute dokumentalean: Zenbat kamera daude Euskal Herriko kaleetan? Non dago segurtasunaren eta askatasunaren arteko muga? Gaizkileak harrapatzeko, kaleetan kamerak jartzea ongi dago? Mundua gero eta kontrolatuago izateko neurriak hartzen dituzte, baina mundua gero eta seguruagoa da?

© berria.info

*Oharra: Galdera hauek gaia jorratzeko lagungarriak izan daitezke. Ez da beharrezkoa guztiei erantzutea.

Eskema hemen egin dezakezu